



BIDEZKO MERKATARITZAREN MUNDUKO EGUNAREN ADIERAZPENA

2019ko maiatzaren 11 Bidezko merkataritza gara, eta zu?

Gaur, maiatzeko bigarren larunbat guztietan bezala, Bidezko Merkataritzaren Munduko Eguna ospatzen dugu.

Gaur gogorarazi nahi dugu milaka pertsona daudela geuk kontsumitzen ditugun produktuen atzetik, gure arropa josi, elikagaiak landatu eta mugikorrek fabrikatzen dituztenak.

Beren gizarte, ekonomia eta lan eskubideak sistematikoki urratzen dizkieten pertsona horiek guztiak nabarmendu nahi ditugu gaur. Sistemak pobrezian eta desberdintasun sakonean bizitzera behartzen dituen eta eragiten ez duten klima aldaketaren eraginak zuzenean jasaten dituzten pertsonak dira.

Gaur, egoera horrek oso jatorri zehatza duela gogorarazi nahi dugu: sistema ekonomikoa hain zuzen ere. Horren arau nagusia irabazi ekonomikorik handiena lortzea da, giza eskubideak eta planetaren eskubideen ginetik, gutxi batzuk aberasteko.

Baina beste mundu baterako aukera ere badagoela gogoratu nahi dugu, merkataritza eta ekonomia pertsonen zerbitzura dagoena. Horrela erakusten dugu egunero bidezko merkataritzaren bidez, milioika pertsonentzat eta ingurumenerako bizitza hobea bermatuz.

Udaberri honetan hauteskundeak nagusi dira, beraz, gure ordezkari politikoek gizatiarragoa eta iraunkorragoa den beste eredu bat ere ezartzea nahi dugu. Hori dela eta, bidezko merkataritzaren alde egin dezaten eskatzen dugu, eta baita, enpresek, giza eskubideak eta ingurumenaren zainketa gure mugek barruan eta mugetatik kanpo berma ditzatela ere.

Bidegabekeriak planetako edozein tokitan salatu eta eragotzi behar direlako. Giza eskubideak pertsona guztienak direlako, eta enpresen interes ekonomikoaren ginetik babestu behar direlako. Ingurumena guztiona delako, eta ezin da beste planeta bat erosi.

Gaur, beste ekonomia eta beste merkataritza bat egon daitezkeela ospatzen dugu. Mundu osoan, pertsona askok, "Bidezko merkataritza gara" ozen esaten dutela ospatzen dugu. Eta zuk? Elkartu gurekin!